

Gasteizko Ubarrundia toponimia lanaren aurkezpena Euskaltzaindiaren Osoko Batzarrari

Azaroaren 26an, Bilboko egoitzan, Euskaltzaindiak hileko osoko batzarra egin zuen. Bileran horretan, *Gasteizko Ubarrundia* eskualdeko toponimiari buruzko lana aurkeztu zuten Jose Luis Lizundiak eta Elena Martinez de Madinak. Lan hau Gasteizko Toponimia egitasmoaren barruan kokatzen da eta eskualde horretako toponimia bildu eta berreskuratzea du helburu.

Jose Luis Lizundia egitasmoaren zuzendariak eta Elena Martinez de Madina teknikariak lanaren inguruko zehaztasunak eman zituzten. *Gasteizko Ubarrundian* sei herri sartzen dira, eta bildutako material guztia aztertu ondoren –mapak, zerrendak, dokumentu zaharrak, era guztietako lekukotasunak– 898 toponimo normatibizatu dira. Lan honen emaitza laster kalera-tuko da.

Gasteizko Toponimia egitasmoaren helburua Gasteizko 64 aldeetako toponimo guztiak –bai historikoak, bai eta bizirik dirautenak ere– era sistematikoa biltzea da. Lehen bi liburuak, *Gasteizko Toponimia I / Toponimia de Vitoria I (Ciudad / Hiria)* eta *Gasteizko Toponimia II / Toponimia de Vitoria II (Malizaeza)*, 2009ko apirilean aurkeztu zituen Euskaltzaindiak, Arabako Foru Aldundian. Orduan ere Jose Luis Lizundiak eta Elena Martinez de Madinak eman zituzten azalpenak.